

Vital Bootcamps



2024ko abuztuaren 26tik irailaren 30era

Informazioa

'Vital Bootcamps' formazioek zibersegurtasunean trebatuko dituzte langabezia dauden **30 pertsona**, eta oso intentsitate handiko programa laburrak dira, % 100 enplegura bideratuak. Ikasleek ez dute aldeaz aurretik inolako ezagutzarik behar eta, taldean eta modu praktikoan lan eginez, trebetasun tekniko oso espezializatuak eta enpresek eskatzen dituztenak eskuratzen dituzte.

Zibersegurtasun programaren ardatza da ikasleak gaitzea zibererasoak egin eta simulatzeko eta ziberzaintza zentroetan lan egiteko. Ikastaroaren ondoren, estatuko batez bestekoa baino % 30 gehiagoko soldata duen lanpostu batean hasteko gaitasuna izango dute, langile eskaera handia duen sektore horretan.

Ikastaroak % 100 praktikoak dira eta 490 orduko iraupena dute. Aurrez aurre emango dira **EmpleoArabaren** Vitoria-Gasteizko instalazioetan, urritik aurrera, **SEA Arabako Enpresak** elkarrearen laguntzari esker. Ikasleek modalitate biren artean aukeratu dezakete: lanaldi osoa (16 aste) edo lanaldi erdia (26 aste). **Matrikula doakoa** da ikasleentzat.

Prestakuntzan parte hartzeko hautagaitzak Lanbidek proposatuko ditu, eta EmpleoArabak eta The Bridgek aukeratuko dituzte

Aurretiko izena ematea

Abuztuaren 26ra arte dago zabalik, sakatu [hemen](#)